

Nagore txapeldun

Mendizorrotza'n Sanmartin-egunez jokaturako partiduen berri baduzu. 22 ta 18 irabazi zion Gorka Nagore irurtzundarrak Iñaki Unanue aňorgatarrari. Ez noski gutxi kostata, gogotik jokatu bait zuan aňorgatarrakere.

«Amazortzina jarri diranean aidean ikusi dut nik partidua. Biak zeuden oso nekatuta. Biak beren nerbio urratuei ezin eutsiz. Edozeñek irabazi zezaken orduan». Kandido Elizalde Nagore-ren botillero errezkidarrak partidua bukatu bezin laister mezulariei esandako itzak dira.

Beste botilleroak berriz, Jokin Errasti azkoitiarrak, «orra baa, -zión-, suete txarra izan du Iñaki'k tanto batzuetan, baña azkenean tanto bakoitzak emandako egokitasunak ongien aprobetxatu ditunak irabazi du jokua. Merezimendu guztiz gainera. Nere zorionak irabazleari».

Jendea, ugari. Mendizorrotza'ko Ogeta frontoia ia-ia osorik bete zalla bait da Mendizorrotza'ko frontoiak beren osotasun guzian betetzea. Ainzuzen jendetza ura naparrak asko, eta asko baitare gizpuzkoarrak, jende pilo ura ainzuzen izan zan partiduko gauzarik ikusgarriena, bakoitza bere mutilari ats-eman naiez oiuka. Bañan era txukenean, zakarkeririk gabe, eta bi pelotarietako batek tanto eder bat egiten zuanen, denak era berean txaloka. Dotore! «Eleganten»!

Diru asko jokatu zan. Partidua- ren etorriak ere, orain bat aurrera eta bestea gero, eta azkeneko berdinketa zoragarri aiek ere, ori eskatzen bait zuten. Alare, tanto eder bat gertatzen zanean danak, gorriaren aldekoak eta urdiñaren aldekoak, danak altxatzen ziran an txaloka.

Kanpotiko jendeak ezin ulertu izaten du ori.

«Jaun orrek gorriaren alde orrenbeste millaka duro jokatu badiu, zergatik ari da orain txaloka eroa bezala, tanto au gorriak ez baño urdiñak egin du-ta?» galdetzen dute.

Urdiñak tanto ori, oso-oso tanto polita egin dulako, eta Jaun ori, naiz frontoiei bizia ematen dieten jokalaria aundi oietako bat izan, jokalaria baiño geiago pelotazalea delako.

Munduan beste iñor ez bezalakoak zerate pelotazeleok.

Orixen da egia. Bai Jauna, bai. Elegantziz munduan beste kirolak ez bezalakoa da euskal-pilota, eta munduan beste bat ez bezalakoa da, elegantziz, euskal-pelotaren



inguruan biltzen dan jendea.

Ta ori izan zan Mendizorrotza'n Sanmartin-eguneko pillota-jaia. Elegantzizko jaia.

Eta ikusleen artean ez ez% bi pelotarien artean ere txukuntasuna, eleganzia, izan zan egiazko garaillea. Ez batetik eta ez bestetik, ez keinu txar bat, goruntzeko begiraketa zakarrik, ezta ezer ere bi zaldun aundi aien gizatasuna ederra eta euskalduntasun jatorra lausotu zezakeanik. Gorka'k azkeneko tanto irabazi bezain laister joan zitzaion besoak zabalik Iñaki zorionak ematera, eta besarkada adiskidetsu batean lotu ziran bi pelotariak.

Jaso beza erakuskizun ori, zortzi egun lenago eskurik ere eman gabe, jaste-geletara asarre iges egin zun Eugi'k. Ikasi beza keñu zakarrik ez egiten eta utzi bitza bein betirako, ezpañei eraginiez zerrura begiraka ibiltze oiek. Eta egin beza zerbait Nafarroa'ko Federazioak mutil orri gizabidea erakusteko.

Partidua bera... ez zen ederra izen. Bai, gogorra. Ez zen polita izen. Bai, ikusgarria. Izan ziren tanto politikak, 13'garren ura batez ere, pentsatu ere ez ditekeen pelotak jaso bait zitun Unanue'k tanto artan. Ez zan gaizki ibilli aňorgatarrak, baña nere ustez, lau t'erdia- ren barruan, beti irabaziko dio Nagore irurtzundarrak.

Zorionak Irurtzun'go pelotari gazte bikañari.

Latiegi'tar Bixente

Euskal liburu zarrak Iruña'n


Aspalditik ari giñan lanean, jakin naiean, nun eta zenbat euskal liburu zar zeuden Iruña'n.

Olako egun batean, diru pilla ordainduta, Alli Lendakariak Londres-en, Joannes de Lizarraga-ren «Testamentu berria» (1571) erosi zuela jakin genuen (1995-III-15'an). Berriz zoragarria: Erosketa orrek bi gauza erran nai dizkigu. Bat; euskal liburu zarrak diruak baino geiago balio dula. Bi; euskal liburuak erri baten altxorra egiten dutela. IGuzti orregatik, eskerrikasko Alli Jaunari eta zorionak!

Goazen ba ikustera zer dagoen Iruña'ko liburutegietan. Lendabizi, Jose Gofi Gaztanbide, Eliz-Nagusi-ko (Katedrala) zuzendaria agurtzera joan nintzen. Oso ongi artu ninduen. Ara emen berriak; 47.000 liburu dituzte, XI'garren gizalditik gaur arte, 140 «inkunables»; liburutegia ederrena Santo Tomas'en oarrak eskuz egindakoak, amalau garren gizaldikoak. «Euskaraz zer duzute?», galdetu nion. «Bateraz»; ERANTZUNA. Bederatzi gizaldietan ta emen Iruña'n ta katedralaren liburutegian euskal liburu bat EZ. Zer erran nai du orrek? Ilkaragarria!

Diputazioaren liburutegi andira joan nintzen. Zuzendariak oso ongi artu ninduen: Berreun milla liburu dituzte. Asiera 1830'garren urtekoa da. Azkeneko berritzea 1940'garren urtekoa. Liburu multzo ederra emeretzi garren gizaldiari buruz daukate. Gai aberatsenak: zezenak eta Iruña iriaren gora berak. Urtero 26 milloi peza dituzte liburu berriak erosteko. Euskerazkoak? Denak, mila ta bortzeun, gutxi gora bera. Oso gutti XIX'garren gizaldiaren aurrekoak; eskuekin zenbatu ditzazkete. 1980'garren urtea ezkeror, ia denak. Euskal liburu-zerrenda makinaz egiñ daukate.

«Archivo General de Navarra» ikustera joan nitzen. Oso ondo artu ninduten. Paper zarren apalak, amairu kilometro luzean egiten dute, gainera liburu zarren museoa edo erakusketa daukate. Eztabaiden auziak bakarrik, irureun milla dire. Euskal kulturari buruz, bilduma ederrak dituzte; Arturo Kanpion'en emaitza (Altzairua, eskuidazkiak, liburutegia), Bonaparte Princearen bildumak Nafarroa'ri buruz, batez ere Joakin Lizarraga-ren zapi eskuzko idazlanak, Euskara elkartearen lanak (Batzarra, agiriak, kideak, txartelak). Bilduma guzti oiek ongi zainduak izatea merezi lukete, baita argitaratuak liburu-izenen zerrendak, ut-suneak osatu bearra daude ta paper zar guzti oiek giltzapean izan bear lukete.



Apaitzegiko liburutegia ikustera joan nintzen. Zuzendariak ongi artu ninduen. 68.000 liburu dituzte. 1943'garren urtean asi zuten bilduma osatzen. Orain lau milloi dituzte liburu berriak urtero erosteko. Euskaraz zer? Joakin Lizarraga-ren lau esku-idazkiak dauzkate gordeta. Ezer gutti, geiago, antzina garai-koak. Nafarroa'ko erriaren dauden euskarazko eliz-itzaldiak ez dituzte sekulan bildu, naiz, «Nafarroa Euskal Arrobia» delako nere liburuan garbi asko ze erriaren dauden esan (1973). Orain elizbarrutian, euskara ontzat artua delako, euskal liburuak erostekotan dabilta.

Opus'tarren ikastetxean izana naiz, baita ongi artua. 630.000 liburu dituzte. Urtero 50.000 liburu berri erosten dituzte, baita 4.541 aldizkari ta 82 egunkari. Milloi peza ematen dituzte urtero euskarazko liburuak erosteko.

Ikastetxe Nagusi Publiko'ra joan nintzen, ta zuzendariak Guillermo Santxez'ek ongi artu ninduen. Etxe berri ori 1991'garren urtean eraiki zuten. 140.000 liburu dituzte. Euskaraz, Magistantza-ikastetxetik ekarritakoak daukate. 1990'garren urtea ezkeror, Nafarroa'n egindako liburu denak artzen dituzte. Euskal gaietan dotoradua egiten ari direnak, «Santxo el Sabio» liburutegira, Gazteiz'era bidaltzen dituzte. Liburutegian, langilleen artean, irutik batek euskaraz egiten du. Aurten liburu zarrak erosteko, sei milloi pezeta jaso dituzte.

Ba dago Iruña'n Aranzadi'tarren liburutegia eta paper zarrak, euskal giroari buruz garrantzi aundikoak. Noruntz joango ote zaizkigu?

Orain Iruña'ra, Joannes de Lizarraga-ren Testamentu Berria ekarri dutela, gauza bat eskatzen dabilta euskal liburu zar eta berriak: Liburutegi berri ta eder bat.

Latzaga

Albiste laburrak

Itoiz'ko zingiraren aldekoek, jo ta ke ikusten dira, Madrid'ko Auzitegi Nagusiak lege-kanpoko eraikitza zalaren erabakia ezabatzeko. Nafarroa'ko Inguru-Giroko Batzordeak, lege-barruan jarriko lukeen legea -zingiratik Txintxurrenea'ra dagon tartean lan egiteko aukera, 500 metroen orde, 250 metrokoa jartzea, alegia-, onartu egingo luke. Nafarroako Jaurlaritzak, bere esku dauden lege ta erabakiak, egun batetik bestera bideratzeko-tan da. Egiten ari diran lanak geldi-araztekoen eskabidea aurrera joango balitz, Madrid'ko Gobernuak, erabaki orrek sor letzaizkio en kalteak ziurtatzeko, diru-aurre- ratzea eskatuko duala adierazi du.

Aurka daudenek ere bereak eta bi egiten alegintzen dira. HB'k Nafarroa'ko Lege-Biltzarrean, Itoiz'ko lanak geldi-arazteko eskabidea bi ordu luzez aztertu ondoren, bakkarrik gelditu zala ta onartzerik etzegola ikusitakoan, autarki ematea egin aurretik, atzera atera zuan. Bide batez, beste bi eskabide ere aurkeztu zituan: Madrid'ko Gobernuari lanak geldi-araztea eskatzea, eta zingira orde. Nafarroa'k bear duan ur- azterketa berri eta sakona egitea. Ez bat eta ez bestea onartu gabe gelditu ziran.

Irurtzun-Andoain lotzen dituan errepide nagusian diru- ordainketarik egin bearrik izango ez dala, Nafarroa'ko eta Gipuzkoa'ko Erri-Lanetako aldunek izan berria duten billeran, erabat erabakita gelditu da. Billera ortan, Europa'rekin errepidez egiten diran loturak obetzeko ta arintzeko, Etxegarate'ko bide-zabaltzea bearrezkoa ikusten dute, baña diruz urri dabil-tzanez, datozen bi edo iru urteetan berari ekiterik ez omen da izango; sei edo zortzi urte joango omen dira, zabaltze ori egiterako.

ETB Nafarroa osoan ikusi al izateko ituna, joan dan astean Nafarroa'ko Lege-Biltzarrik izenpetu zuan. Itun orren bidez, orain ez bezala, lurralde osoan ikusi al izango da eta orain ikusi bai, baña baimen berezirik gabe jokatzeko bukatuko da, lege barruan gelditu dalako. Erabakiaren alde PSOE, CDN, EA eta IU alderdiak; UPN'k ez zuan autarkirik eman, erabaki orrek 200 milloi peztako kastua izanik, aurreroko bearrik ba- da-goalako; HB'k, berriz, aurka jokatu zuan, beste TB'ekin ez bezala, bereizketa egiten dalako.

Paz de Ciganda ikastolak bizirik daramazkin 25 urteren ondoren, egoitza berri ta eder bat biar amabost iriki zuan. 1.000 milloi peza kosta da; Nafarroa'ko Jaurlaritzak, 200 milloi peza eman ditu. Nafarroa oinez eta beste bideetatik, 730 milloi peza bideratuak daude. 860 aurrek ikasten dute bertan; oyeta-tik, 730'ek, bertan bazkaltzen dute. Goizero autobusez bertaratzen diran- nak, 480. Jai-aldian milla lagunak esku artu zuten; oyen artean Alli jauna, ezkuntzako aldun dan Pedro Burillo ta Industriako Cabases; baña danentzat pozgarriena, Migel Indurain bertan izatea izan zan.

Iru astetan ospatu dan «Bertsolaria»k, euntalako arrakasta izan du; ekitaldi bakoitzean, irureun lagunetik gora bildu ziran. Egitarau- ren ekinizarik unkigarriena, Xalbador zanari eskeñitakoa. Baita ere oso atsegiña izan zan, Ezitxu Arozena, naparra, eta Sebastian Lizaso, Iñaki Murua eta Anjel Mari Peñagarikano, gipuzkoarrak, eskeñitako bertso-jailadia.

Berri-emalle

Berri ona

Zer gertatuko?

«Etorriko dira egunak» (Lk. 21, 5-19)

GAURKO jendea ez dio ajola aundirik geroak. Egunean eguneko bizitzea da kuestioa. Biarkoak bost inportat- Geienara ere, ala diote batzuk, atomozko bonba batek errauts biurtuko du mundu kaskar au eta, kitto!

Noski, guri ez zaigu tokatzen azken ueña noiz izango den jakitea eta asmatzea. Ala ta guztiz ere galdetu bear genuke nora goazen. Nora garmatza munduan gertatzen denak? Gertatzen den guztiak zerikusirik bai al du Jainkoaren maitasunarekin?

Jesus-en jarraitzailearen bidea zein den adierazten zaigu gaurkoan. Gure fede kaskarra salatzen zaigu gaurko ebanjelioan. Agian, ez dugu sakontasunez Jesus Gurrutziltzatuagan eta Berpiztuagan geiegi sinisten.

Gaurko gizakiak baditu beste pentsakerak. Eta leentasun oietan apenas fede kezkarik dagoen. Oraingo gizartearen joera ez da gero

zer izanen dugun pentsatzea, gaur nola dirutu- biar ondo bizitzeko pentsatzea baizik.

Gure familiar, lanean, elkar-arte, auzoan, gizarteko konpromisoetan... Jaunak sormen aundiagoarekin nai gaitu. Mundua obetzen gure indarrak eta aalmenak gastatzea nai luke Jaunak.

Gu, ordea, itxaroten asperturik aurkitzen gera. Itxaron, nori? Eta zer itxaro bear dugu? Eta galdera berdiñak beti: Noizko izanen dugu pakea? Noizko justizia? Noiz ongiak irabaziko dio gaizkiari? Noizko izango dugu albiste on eta edere bezalako egunkaria? Noiz...?

Azken bolada onetan asko dira munduaren azkena iragarri digutenak. Gizarajoak! Badirudi sari bereziren bat badagoela asmatzaile- rentzat. Zer erraten ari dira Jehova-ren Testiguak? Edota, Zazpigarren. Eguneko Adbentistak? Edota...

Etorrizuna asmatzen dutenak ere orretan ari

dira jo ta ke. Bakoitzak bere iritzia ematen du, ondo kobratzen dute txorakeriak errateagatik eta kaiso motel...! Jesus-ek zorrotz dio: «Ez jarraitu orrelakoei».

Itxarotea dagokigu. Itxaroten dakienak bi- zitzari arretaz eta alaitasunez begiratzen dio. Bai ote dugu itxaropenik?

Egia da, bai, justiziaren aunditasuna bizi nai dugula mundu onetan, baiña gizakia or dabil zuzengabekieraz. Elkartasuna nai dugu mun- du onetan, baiña alderdi guztietan zatiketa bertzerik ez dugu ikusten. Gauzak bear bezala eta diren moduan jartzeko eta egiteko ez dugu itxaroten.

Geurekoikeria jorratzen dugun bitartean etorkizuna erabat beltz ikusiko dugu. Itxaro- penik ez dugu izango eta etorkizunari muzin egingo diogu. Gure izatea aldatzen ikasi bea- rra daukagu. Noiz? Lenbailen obe!

Artzallu'tar Joxemari